

# ERROMANIKO AZTARNA HONDARRIBIKO ELIZA NAGUSIAN

**D**uela zenbait denbora, garbiketa batzuren ondotik ohartu nintzen Hondarribiko Santa Maria elizaren oinarrietan erromaniko estilodun arkibolta zati batez, eta honen berri eman nahi dut lerro hauetan.

Denok dakigunez, oraingo eliza nagusia gotikoaren azken hondarretakoa dugu, XV. mende bukaeran eraikia, baina XVI.aren haseran bukatua. Bere solairu egitura latino gurutzeaz, mendebaldetik ekaldera hiru solairu zabal dituelarik, sabai gurutzatuez eta elizburu poligonala ditu, gotikoan ohi bezela.

Toki berean lehendik bazen beste eliza bat, zeinen berriak ditugun han bertan 1353. urteko urriaren 29an hondarribiarrek Baiona eta Miarritzeko itsasgizonekin sinatu zituzten elkarren arteko bakeak.

Edonork dakigunez, garai haietan Hondarribia Baionako Apezpikutegi barrutikoa zen.

XIV. mendeko eliza haren aztarnarik ez genuen ezagutzen. Gotikoaren haserakoa zen ala lehenagotik erromaniko eliza izan zitekeena. Hor nituen nire zalantzak duela

hamalau urte monumentu honen espedientea egitean. Orain, ordea, gutien uste nuelarik, hara hor arkeoloji aztarna polita, XII. mendeko agiria erakusten diguna.

Elizaren ekaldetik, dorrearen oinarrietatik hurbil, hormen azpiko aldean, baina zimentarrien gainetik ageri da arkibolta landuaren zati bat. Antzinako elizarena, noski, Hondarharrizkoa (hemen, Hondarribian, "mimarri" deritzaiona), 45 zentimetro baizik ez ditu luze. Apaingarriz lau ostodun hiru roseta ditu erromanikoaren lekuko, rosetaren erdira punta

zorrotzez, estilo horretan iltzeburu eta diamante-puntatzat ezagutzen diren apaingarri klasikoen artean jartzeko. Egin nion argazkitik osatua da hemen aukezten dudan irudia.

Arkibolta zati hori ez dut uste beste inondik ekarria denik, batez ere XIV. mende erdiko berri idatziak ditugunez, bertako eliza zaharragoaren aztarnatzat jo dezakegun ziurtzat, beste eliza askotan gertatzen zaigun bezela.

*Juan San Martin.*

